

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Zamudioko Udala

Ayuntamiento de Zamudio

2020





AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURDURAK	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA	8
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	8
II.2 Urteko Kontuei buruzko Iritzia	8
III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	9
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea	9
III.2 Diru-sarrerak eta diru-bilketa	9
III.3 Langileria	10
III.4 Kontratazioa.....	10
III.5 Transferentziak eta dirulaguntzak	11
III.6 Beste alderdi batzuk	11
IV. FINANTZAREN ANALISIA.....	12
V. URTEKO KONTUAK	14
ERANSKINAK	17
A.1 Fiskalizazio-gai den erakundearen izaera eta ezargarria zaion legeria	17
A.2 Aurrekontua eta aldaketak	17
A.3 Zergak, tasak eta bestelako sarrerak	18
A.4 Transferentziek eta dirulaguntzek eragindako sarrerak	19
A.5 Langileen gastuak.....	21
A.6 Ondasun arrunten eta zerbitzu eta inbertsioen kontratazioa	22
A.7 Emandako transferentziak eta dirulaguntza arruntak	24
A.8 Aurrekontuko zordunak eta pasibo arrunta	26
A.9 Aktibo ez korrontea.....	28
A.10 Kontratazioaren analisia.....	28
ALEGAZIOAK.....	31



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ABREVIATURAS	39
I. INTRODUCCIÓN	41
II. OPINIÓN	42
II.1 Opinión sobre el Cumplimiento de la Legalidad	42
II.2 Opinión sobre las Cuentas Anuales.....	42
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	43
III.1 Presupuesto y Contabilidad	43
III.2 Ingresos y Recaudación.....	43
III.3 Personal.....	44
III.4 Contratación	44
III.5 Transferencias y Subvenciones	45
III.6 Otros Aspectos	45
IV. ANÁLISIS FINANCIERO.....	46
V. CUENTAS ANUALES.....	49
ANEXOS.....	53
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado y legislación aplicable.....	53
A.2 Presupuesto y sus modificaciones	53
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos	54
A.4 Ingresos por transferencias, subvenciones y otros ingresos.....	55
A.5 Gastos de personal	57
A.6 Compra de bienes corrientes y servicios e inversiones	58
A.7 Transferencias y subvenciones corrientes concedidas	59
A.8 Deudores presupuestarios y Pasivo corriente	62
A.9 Activo no corriente	64
A.10 Análisis de contratación	64
ALEGACIONES	67

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 26a
Vitoria-Gasteiz, a 26 de mayo de 2022



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
BBUP	Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoa.
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EBAO	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala.
EIOZ	Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga.
GLL	Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.
GODG	Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina.
HHS	Hiri-hondakin solidoak.
HILBIZ	Hiri izaerako lursailen balio igoera.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
JEZ	Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.
LEI	Lanerako Ezintasun Iragankorra.
LUO	Lurraren Udal Ondarea.
LZ	Lanpostuen zerrenda.
Mankomunitatea	Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea.
OHZ	Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.
TAOAL	7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen.
Udalkutxa	Udal Finantzaketarako Foru Funtza.



I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak agindutakoari eta Epaitegiaren Osoko bilkurak onetsitako Lan Programari jarraikiz, Zamudioko Udalaren 2020ko ekitaldiko Kontu Orokorren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: aurrekontuaren honako atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta dirulaguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazio-gai den ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea eragotzi gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako hauek besarkatzen ditu: Udalaren ondarearen emaitza ekonomiakoaren kontua eta oroitidazkia ez ezik, aurrekontuaren likidazioa ere bai.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa-prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Zamudioko udalerrriak 3.275 biztanle zituen 2020ko urtarrilaren 1ean eta Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatean parte hartzen du, zeinak zerbitzu hauek eskaintzen baititu: zabor-bilketa, kale garbiketa, argiteria publikoa, gizarte-ongizatea, enplegu sustapena eta euskara bultzatzea. Gainera, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren atal da, eskualdeko sarearen bitartez hornidura eta saneamendu zerbitzuak ematen dituena.



II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1. Udal liburutegiko zerbitzua 2009an esleitu zen zerbitzuak kudeatzeko kontratu modura 8 urterako eta bi urtez behingo 2 luzapenatarako, eta iraupena 2021era arte luzatu da; ordea, prestazioen izaera aintzat hartuta, zerbitzu-kontratua egitea zegokion, eta, beraz, haren gehieneko iraupena 6 urtekoa zen. Udal eraikinak garbitzeko kontratuaren indarraldia 2020ko maiatzera arte luzatu zen, zerbitzuaren kontratazio berria errekurritu zelako, eta espediente berria izapidetzeko data 2021eko abuztura arte atzeratu zen. 2020an, 2 kontratuen kostua hurrenez hurren 60.499 eta 135.891 euro izan zen (2020ko ekainetik) (ikus A.10).
2. Udalak publikotasun eta lehia printzipioak urratu zituen zerbitzu bat kontratu txiki modura izapidetu zuelako, 2020an 44.167 euroren kostua izan zuena; ordea, prozedura ireki sinplifikatu bitartez esleitu behar zatekeen. (ikus A.10).

Epaitegi honen ustetan, Zamudioko Udalak, 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete du 2020ko ekitaldian ekonomia eta finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Balantzearen Ibilgetu Materialaren Azpiegiturak idazpuruak 2016 baino lehenagoko 30,2 milioi euro barne hartzen ditu, amortizatu ez direnak (A.9).
2. Udal arkitektoak bere lanpostuaz gainera zerbitzu osagarriengatik 363.727 euro erreklamatu zituen epaiketa bidezko errekurtsio bidez. Gainera, langile horrek Udala auzitara eraman zuen 2021eko martxoan, ordaindu gabeko Gizarte Segurantzako kuotengatik (ikus A.6). Bestalde, Torrelarragoitiko poligonoaren urbanizazio-gastuen behin betiko likidazioa, 2018an onartua, errekurritu egin zen, 272.155 euroko guztizko zenbatekoan (ikus A.8). Txosten hau idatzi dugun datan ebazteke zeuden aurreko errekurtsioak. Gertakari hauek ez dira Memorian jaso.

Epaitegi honen iritzira, aurreko 1. eta 2. paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Zamudioko Udalaren Kontu Orokorrek alderdi esanguratsu guztietan erakusten du 2020ko ekitaldiaren jardura ekonomikoa eta 2020ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, arauan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jaso dira ekonomia eta finantza jarduera arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak ez ezik, baita kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere.

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- 2019an Udalak birpartzelazio bat onartu zuen eta 3 mendi-sail eskuratu zituen, guztira 4,9 hektarea, udal ondarean alta eman ez zitzaiena. Gainera, Lurraren Udal Ondarearen kontuetan zerbitzu publikoei atxikitako ondasunak barne hartzen dira.
- Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikina kalkulatzeko komeniko litzateke Lurraren Udal Ondarearen sarrerek sortutako desbideratzeak (2,4 milioi euro 2020ko abenduaren 31n) bereiztea helburudun sarreretan sortzen diren haietatik, horiek eskatzen baitute emakida-ebazpenak zehaztutako obra jakin batzuk epe jakinetan egitea.

III.2 DIRU-SARRERAK ETA DIRU-BILKETA

- Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren likidazioan atzerapenak izan ziren. 2021eko irailera arte, 2020ko transmisioak likidatu ziren (10 espediente), eta 63.111 euroren diru-sarrerak eragin zituzten; 2020ko beste 55 espediente likidatu gabe zeuden.
- Udalak ez dauzka ur-hornikuntzaren eta zabor-bilketaren tasen 2020ko likidazioak, BBUPk egindakoak eta organo eskudunak aldeztatik onartu gabe kobratzeko bideratutakoak.
- Berebat, organo eskudunak ez zituen onartu estolderia-tasaren likidazioak. Gainera, BEk eta BFAk 22.643 euroren kostua duten diru-bilketako zerbitzuak eman dituzte 2020an, dagokion enkargua formalizatu gabe.
- Udalak BBUPren ur-horniduraren tasaren Ordenantza aplikatzen du, Udalbatzaren aldeztutako onespenez gabe. BBUPren estatutuaren aurreikusten da partzuergoko udalerrietan BBUPek onartutako Ordenantza aplikatuko dela, baina aurreikuspen hori soilik udal-zerbitzua BBUPren esku dagoen kasuetarako da soilik.
- Aurrekontu itxietako kobratzeko dauden 1etik 3ra bitarteko kapituluaren kontularitzako saldoak 845.843 euroan gaintzen dituzte 2020ko abenduaren 31n premiamendu bidezko likidazioak. 2019 baino lehenagoko saldoak zuzkituak daude, baina komeniko litzateke aldeak aztertu eta erregularizatzea.
- La Cruz industrialdearen urbanizazioak Lezamako Udalarari 577.613 eta 224.431 euroren kobratzeko saldoak eragin dizkio, eta ordaintzeko 575.800 euroren beste bat, 2014an partikular baten bidegabeko diru-sarrera baten ondorioz. Azken hau Lezamako Udalean egin behar zatekeen eta kobrantzetan atzerapenak eragiten ditu; honenbestez, komenigarria litzateke egoera hori bideratzea, zor-saldoak baliogabetzeko.

III.3 LANGILERIA

- Indarrean dauden lanpostuen zerrendako soldata-osagarriari dagokienez, 2016ko aldaketa berrikusi dugu, non 6 lanpostu berri sortu baitziren, esleitutako osagarriak justifikatu gabe. Espedientean ere ez dago jasota langileen ordezkariekin nahitaezko negoziazioa gauzatu denik.
- Lanpostuen zerrendak 12 hilekori dagokien berariazko osagarria barne hartzen du, ez baititu aintzat hartzen aparteko ordainsarrietan jasotako bi hilekoak.
- 19 langileren berariazko osagarria nominetan xehakutzen da, adieraziaz LPZn zehaztu beharko litzatekeen dedikazio bereziko osagarria (ordainsari finkoen % 15) barne hartzen duela.
- 2020ko abenduaren 31n indarrean zeuden 2004 eta 2009 bitartean formalizatutako aldi baterako 8 lan-kontratu, horietako 4 mugagabe izendatu zirenak 2013ko eta 2015eko epai bitartez. Epaiek adierazten zuten Udalak beharrezko neurriak hartu beharko litzuzkeela lanpostu horiek arauz betetzeko.
- Udalak ez dio Bizkaiko Foru Ogasunari jakinarazi langileei ematen dizkien gauzako ordainsariak, batez ere bizi-aseguruei dagozkienak, 20.001 euro 2020an , nahiz eta Bizkaiko Lurralde Historikoan ez duten zergarik ordaindu behar.

III.4 KONTRATAZIOA

Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden 3 kontratu nagusiak aztertu ondoren -2,4 milioi euroren esleipenei dagozkienak- honako alderdi hauek azalatu zaizkigu (ikus A.10 eranskina):

- 3 kontratuetan Memoriak balio zenbatetsia banakatu behar zuen eta erabilitako hautaketa-irizpideak justifikatu (A1 akatsa).
- 711.763 euroan esleitutako bi kontratutan (1. eta 2. espedienteak), Kontratazio Plataforman ez zen argitaratu balio-judizioaren mende dauden irizpideak aztertuko dituen txosten teknikoa (A2 akatsa).
- Berdeguneak mantentzeko zerbitzuaren lizitazioan (396.222 euroan esleitua), balio-judizioaren mende zeuden irizpideak baloratzen zituen txosten teknikoak ez zituen justifikatu aurkeztutako 4 eskaintzei esleitutako puntuazioak (B akatsa).
- Eskola zaharreko aparkalekuaren eta plazaren estalkiaren obra 1,7 milioi euroan esleitu zen, kontratazio-mahaiak lehenengo bilera egin eta 6 hilabetera, eta araudiak aurreikusitako 2 hilabeteko epea gainditu zen (B akatsa).

Beste erosketa batzuk

- 2020an, 69.008 euro ordaindu ziren 2019an amaitutako Arteagako sektoreko urbanizazio-obren prezioak berrikusi izanaren ondorioz. 2011ko kontratuak prezioen berrikuspena aurreikusten zuen arren, atzerapenez likidatu ziren, eta exekuzioan luzapenak eta aldaketak egin ziren; formalizatu ez zirenak.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- 149.527 euroren kostua izan zuten 5 kontratu erosketa txiki modura izapidetu ziren, prozedura ireki sinplifikatu laburtuaren bidez izapidetu beharrean (ikus A.10).
- Udal gazte zerbitzuaren kontratua 2019ko abuztura arte zegoen indarrean, eta urtean bi luzapen egitea aurreikusi zen. Udalak bigarrena 2020ko irailean adostu zuen, baina lehenengoa formalizatu gabe.

III.5 TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUNTZAK

- Ez dago jaso hizkuntza-normalkuntzarako zerbitzuak Mankomunitateari transferitzeko Udalbatzaren erabakia; zerbitzu horietarako Udalak 101.298 euro eman zituen 2020an. Ohiko ekarpenaz gain, Udalak beste 2 ekarpen osagarri onartu zituen eta zehaztasunez arautu zuen kasu batean; bestean, berriz, GLLetarako 30.000 euroren ekarpena onartu zuen, justifikazioa arautu gabe.
- Transferitutako udal-zerbitzuen ekarpenaz gain, Udalak 68.600 euro ordaindu zizkion Mankomunitateari laguntza informatikoagatik, eta 37.200 euro udal-artxiiboak kudeatzeagatik, animaliak biltzeagatik, desfibriladoreak alokatzeagatik eta berdintasun-eta gazteria-programengatik. Lehenengo kasuan, Udala da laguntza ematen zaion udal mankomunatu bakarra, eta egokiagoa litzateke prestazio horiek zerbitzu-enkargu edo kontratu arrunt gisa antolatzea. Gainerako kasuetan, Mankomunitateari enkarguak egin beharko litzaizkioke, baldin eta dagozkion baliabideak izanez gero, edo erosketa horiek baterako kontratazio gisa izapidetu.
- Udalak ez zien publikotasunik eman fiskalizazio-gai izan den ekitaldiko dirulaguntzen emakiden ebazpenei.

III.6 BESTE ALDERDI BATZUK

- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea zuzen betetzeko, Udalak webgunean argitaratu behar lituzke, besteak beste, honako hauei buruzko datu gaurkotuak: aurrekontuak, urteko kontuak, Udalbatzaren aktak, emandako dirulaguntzak, goi kargudunen ordainsariak eta kudeaketako mandatuak. Azkenik, udal-laguntzak jasotzen dituzten elkarteek gardentasunari buruzko araudiaren betebeharrak betetzen dituztela egiaztatu beharko litzateke.



IV. FINANTZAREN ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan eta fiskalizazio-gai izan den urtean kitatutako magnitude nagusien bilakaera segidako taulan dago zehaztua:

FINANTZAREN ANALISIA

	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	Urtea			Urtea		
	2018 (*)	2019 (*)	2020	2018	2019	2020
Zerga zuzenak, zeharkakoak, tasak eta best. sarr. (1, 2 eta 3 kap.).....	6.578	6.815	6.099	2.033	2.090	1.862
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.).....	2.593	2.976	2.213	801	913	676
Ondare sarrerak (5. kap.).....	12	10	10	4	3	3
A. Sarrera arruntak	9.183	9.801	8.322	2.838	3.006	2.541
Langileria gastuak (1. kap.).....	1.926	2.279	2.108	595	699	644
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak (2. kap.).....	3.630	3.716	3.379	1.122	1.140	1.032
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.).....	2.100	2.158	2.295	649	662	700
B. Funtzionamendu-gastuak	7.656	8.153	7.782	2.366	2.501	2.376
Aurrezki gordina (A-B)	1.527	1.648	540	472	505	165
- Gastu finantzarioak (3. kap.).....	(1)	(20)	(2)	-	(6)	(1)
Emaitza arrunta	1.526	1.628	538	472	499	164
- Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	-	-	-	-	-	-
Aurrezki garbia	1.526	1.628	538	472	499	164
Inbertsio errealeen besterentzea (6. kap.).....	349	935	968	108	287	296
Jasotako kapital transferentziak eta dirulaguntzak (7. kap.).....	110	54	185	33	17	56
- Inbertsio errealak (6. kap.).....	(1.110)	(540)	(750)	(343)	(166)	(229)
- Emandako kapitalezko dirulaguntzak (7. kap.).....	(448)	(311)	(12)	(138)	(95)	(4)
Kapitalezko eragiketen emaitza	(1.099)	138	391	(340)	43	119
Eragik. ez finantzarioaren emaitza (1etik 7rako kap.).....	427	1.766	929	132	542	283
Diruzaintza Geldikina	10.292	12.055	12.916	3.180	3.698	3.944
Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina.....	6.994	7.320	6.784	2.161	2.245	2.071
Zorpetzea 12/31n	-	-	-	-	-	-

(*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

Sarrera arruntak: % 9,4 egin dute behera 2018ko urtearen aldean.

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak:** zerga-sarrerak izan duten % 7,3ko murrizketa Eraikuntzen eta Hiri-lursailen Balio Igoeraren gaineko zergetan gertatu da.
- **Transferentziak eta dirulaguntzak:** % 14,7 egin dute behera, osagai nagusi den Udalkutxa % 9,6 minoratu baita eta hirurtekoaren lehenengo urtean helburudun dirulaguntzek pisu handiagoa izan dutelako.



Funtzionamendu-gastuak: % 1,6 egin dute gora 2018ko urtearen aldean.

- **Pertsonal-gastuak** % 9,4 gehitu dira, 2019an eta 2020an izandako % 2,8ko eta % 2ko soldata-igoeren ondorioz eta 2 funtzionario gaitu gehigarriekin plantilla handitu izanaren ondorioz.
- **Ondasun arrunten eta zerbitzuen** erosketak % 6,9 murriztu ziren, jarduera soziokulturaletan (% 88,6) eta enpresek emandako zerbitzuen kostuan izandako murrizketen ondorioz. Aitzitik, konponketek % 40,6 egin zuten gora, udal bideetan eta beste azpiegitura batzuetan egindako hobekuntzen ondorioz.
- **Transferentziak eta dirulaguntzak** % 9,3 igo dira, eta azpimarratzekoak dira Mankomunitateari egindako ekarpenen % 9,8ko igoera eta 2020an tokiko merkataritzari emandako laguntza puntualak, 204.629 euro. Aldiz, irabazi asmorik gabeko erakundeentzako eta pertsonentzako dirulaguntzak % 28 murriztu ziren Covid krisiaren ondorioz jarduera murriztu izanaren ondorioz.

Aurrezki gordina, garbia eta zorpetzea: Zorpetzerik ez izateak berdindu egin ditu aurrezki gordinaren eta garbiaren zenbatekoa; azken honek 9,8 milioi euro egin zituen 2020an, sarrera arrunten gainean % 6,5. 2020ko krisialdiaren eraginez, ehuneko hori murriztu egin zen aurreko urtekoen aldean (% 16,6).

Kapital-eragiketen emaitza: hirurtekoan egindako inbertsioak, 3,2 milioi euro, sarrera arrunten % 11,6 izan dira. Kapitalezko sarrerek inbertsioen % 82 egin dute.

GODG: hirurtekoan egonkor eutsi dio, nahiz eta eragiketa ez-finantzarioek emaitza positiboak izan, kaudimengabezien hornidura eta finantzaketa-desbideratzeak areagotu egin baitira. Lurraren Udal Ondarearen diru-sarrerek eragindako finantzaketa-desbideratzeak 3,4 milioi eurokoak ziren 2020ko abenduaren 31n. 2020ko abenduaren 31n Diruzaintza geldikina 6,8 milioi euro izan zen, ekitaldi horretako sarrera arrunten % 81,5.

Ondorioa: 2020an Covidaren krisiak eraginda diru-sarrerek izan duten beherakada berdindu egin da hein batean erosketak murriztearekin; aldiz, pertsonaleko gastuek eta dirulaguntzek eta transferentziek gora egin dute eta 2020an sortutako aurrezki garbiaren unean uneko murrizketa gertatu da. Geldikin erabilgarriak bere horretan eutsi dio aztertutako aldian eta 2020ko abenduaren 31koak bikoiztu egin ditu hirurtekoako kapitalezko eragiketengatikoko gastuak.

Aurrekontuaren egonkortasuna: Udaleko Kontuhartzaitzaren txostenak adierazten du Covid krisiaren ondorioz eten egin zirela 2020rako ezarritako helburuak. Hala eta guztiz ere, likidazioari buruzko egoera aztertu du, eta ondorioztatu du helburuak betetzen direla, eragiketa ez-finantzarioetan superabita lortzen delako, zorpetzera jo beharrik izan ez delako eta gastu konputagarria % 5,2 murriztu delako 2019aren aldean.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

2020KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	AURREKONTUA				ESKUBIDE KITAT.	KOBRA. KOBRA.	KOBRA. GABEA	% EGIK.
	ERANSK.	HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.				
1 Zerga zuzenak	A.3	3.960	-	3.960	4.159	4.070	89	% 105
2. Zeharkako zergak	A.3	350	-	350	201	186	15	% 57
3. Tasak eta bestelako sarrerak	A.3	1.871	-	1.871	1.739	1.403	336	% 93
4. Transferentzia arruntak	A.4	2.377	118	2.495	2.213	2.175	38	% 89
5. Ondare-sarrerak	-	12	-	12	10	10	-	% 83
6. Inbertsio errealen besterentzea	A.4	-	1.068	1.068	969	969	-	% 91
7. Kapitalezko transferentziak	A.4	20	305	325	185	113	72	% 57
8. Aktibo finantzarioak	-	11	7.376	7.387	6	6	-	(*)% 55
SARRERAK, GUZTIRA		8.601	8.867	17.468	9.482	8.932	550	(*) % 94

(*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

GASTUAK	AURREKONTUA				OBLIG.		ORDAIN. GABE	% EGIK.
	ERANSK.	HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.	AITORT.	ORDAINK.		
1. Pertsonaleko gastuak		2.485	-	2.485	2.108	2.102	6	% 85
2. Ondasun korr. eta zerbitz. kontrat.	A.6	3.697	2.024	5.721	3.379	2.357	1.022	% 59
3. Gastu finantzarioak	-	1	3	4	2	2	-	% 50
4. Transferentzia arruntak	A.7	2.303	531	2.834	2.295	2.076	219	% 81
5. Kred. glob. eta bestel. ustekabek.	-	-	384	384	-	-	-	E/E
6. Inbertsio errealak	A.6	44	5.925	5.969	750	715	35	% 13
7. Kapitalezko transferentziak	-	60	-	60	12	12	-	% 20
8. Aktibo finantzarioak	-	11	-	11	-	-	-	% 0
GASTUAK, GUZTIRA		8.601	8.867	17.468	8.546	7.264	1.282	% 49
SARRERAK - GASTUAK					936			

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIER.	BALIOG.	KOBRA./ ORDAIN.	AZKEN ZORRA
		ZORRA			
Kobratzeko saldoak	A.8	3.625	(76)	1.052	2.497
Ordaintzeko saldoak	-	1.032	-	1.004	28
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA			(76)		



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Eskubide kitatuak.....	9.482
Obligazio aitortuak	8.546
INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	936
AURREKO EKITALDIETAKO KITATUTAKO AURREK. ERAGIKETEN EMAITZA	(76)
EKITALDIAREN AURREKONTUKO EMAITZA	860
Finantzaketako desbideratzeak	(904)
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak.....	1.270
AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA	1.226

DIRUZAINZA GELDIKINA	Euroak milakotan
Diruzaintza geldikin likidoa 20.1.1ean.....	12.056
Ekitaldiaren aurrekontuko emaitza.....	860
DIRUZAINZA-GELDIKINA 20.12.31-N	12.916
Diruzaintzako funts likidoak	12.350
Sarrerren aurrekontuko zordunak	3.047
Aurrekontuz kanpoko zordunak	53
Gastu-aurrekontuaren hartzekodunak	(1.310)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak.....	(443)
Aplikatzeko kontu-sailak-kobrantsak	(813)
Aplikatzeko kontu-sailak-ordainketak	32
DIRUZAINZA GELDIKINA 2020.12.31N	12.916
Zalantzazko kobragarritasuneko saldoak.....	(1.735)
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza geldikina	(4.397)
GODG 20/12/31N	6.784
ZORPETZEA 20.12.31n	-



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

BALANTZEAK 2020 ETA 2019KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

AKTIBOA	ERANS.	2020	2019	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	ERANS.	2020	2019
AKTIBO EZ KORRONTEA		78.095	78.351	ONDARE GARBIA		88.244	88.258
Ibilgetu ukiezina	A.9	444	374	Ondarea		54.289	54.592
Ibilgetu materiala	A.9	60.833	61.022	Aurreko ekitaldietako emaitzak		32.992	33.037
Lurraren ondare publikoa.....	A.9	16.532	16.669	Ekitaldiko emaitza		(121)	(303)
Epe luz. finantza inbertsioak	A.9	286	286	Balio aldaketagatiko doiketak		1	1
				Emaitzetara egozteko dirulaguntzak	A.4	1.083	931
AKTIBO KORRONTEA		13.748	13.771	PASIBO KORRONTEA	A.9	3.599	3.864
Zord. eta kobr. bst knt b.	A.8	900	1.674	Epe motzeko zorrak		1.133	1.079
Epe motz. finantza inbertsioak ...	A.8	498	816	Hartzek. eta ord. bst kontu batz.		2.466	2.785
Eskud. bst. akt. lik. baliokideak ..		12.350	11.281				
GUZTIRA		91.843	92.122	GUZTIRA		91.843	92.122

ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA 2020 ETA 2019

Euroak milakotan

	2020	2019
Zergak	4.364	4.635
Tasak	1.651	1.869
Hirigintzako sarrerak	-	131
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	2.018	2.292
Ibilgetu ez finantzarioako eta aktibo korronteetarako dirulaguntzak egozteak	81	81
Salmentak eta zerbitzuen prestazioa.....	-	41
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.	51	276
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA	8.165	9.325
Langileen gastuak.....	(2.230)	(2.416)
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak	(2.307)	(2.469)
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk.....	(3.308)	(3.593)
Ibilgetua amortizatzea	(934)	(963)
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA	(8.779)	(9.441)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA	(614)	(116)
Besterentzeak eta bajak	969	(105)
Beste kontusail ez-arrunt batzuk (itzulketak eta beste txikiago batzuk).....	20	1
ERAGIKETA EZ-FINANTZARIOEN EMAITZAK	375	(220)
Sarrera finantzarioak.....	21	9
Gastu finantzarioak	(2)	(19)
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak	(515)	(73)
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK	(496)	(83)
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA	(121)	(303)



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ERANSKINAK

A.1 FISKALIZAZIO-GAI DEN ERAKUNDEAREN IZAERA ETA EZARGARRIA ZAION LEGERIA

Zamudioko Udala toki entitate bat da, oinarritzko ezaugarrietan Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak eta 2/2026 Legeak, Euskadiko Toki Entitateei buruzkoak, arautzen dutena.

Arautegi horrek udalek ematen dituzten eskumenak edo zerbitzu publikoak definitzen dituzte, besteak beste: segurtasuna, garbiketa-zerbitzua, suteak itzaltzeko zerbitzua, ur-hornidura, saneamendu-sarea, argiteria publikoa, hirigintza-diziplina, kultura- eta kirol-jarduerak.

Zerbitzu hauek nagusiki honako hauen bidez finantzatzen dira: zerga, tasa eta prezio publikoak, zerga itunduetan parte-hartzeagatik sarrerak, ondare-sarrerak, dirulaguntzak eta kreditu-eragiketak.

Ekitaldian ezargarrria den aurrekontuko eta kontularitzako araudi nagusia 10/2003 Foru Arauak jasotzen du, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Toki Entitateen Aurrekontuei buruzkoak, eta 139/2015 Foru Dekretuak, Bizkaiko toki entitateen kontularitzako araudi-esparrua onartzen duenak.

A.2 AURREKONTUA ETA ALDAKETAK

2020ko ekitaldirako aurrekontu orokorra 2019ko azaroaren 27ko Osoko bilkurak onetsi zuen hasiera batean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2020ko urtarrilaren 15ean eman zen argitara.

Hona hemen, 2020ko aurrekontu-aldaketak kapituluka xehakaturik:

KAPITULUAK	Euroak milakotan					
	Kreditu txertak.	Kreditu gehigarria	Kreditu gaikuntza	Transferentziak		GUZTIRA
				+	-	
4. Transferentzia arruntak	-	-	118	-	-	118
6. Inbertsio errealean besterentzea.....	560	-	508	-	-	1.068
7. Kapitalezko transferentziak	305	-	-	-	-	305
8. Aktibo finantzarioen bariazioa: Geldikina.....	4.585	2.791	-	-	-	7.376
SARRERAK, GUZTIRA	5.450	2.791	626	-	-	8.867
2. Ondasun korronteetan eta zerbitz. gast.	725	1.186	112	-	-	2.023
3. Gastu finantzarioak	-	-	-	3	-	3
4. Transferentzia korronteak	5	520	6	-	-	531
5. Kreditu globala	-	400	-	-	(15)	385
6. Inbertsio errealak	4.720	685	508	12	-	5.925
GASTUAK, GUZTIRA	5.450	2.791	626	15	(15)	8.867

Onartutako 10 aldaketa-espeditentek gastuen hasierako aurrekontua % 103,1 gehitu dute.

2020ko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioa 2021eko otsailaren 26ko Alkatetzaren Dekretu bidez onartu zen eta Kontu Orokorra 2021eko uztailaren 1eko Udalbatza bitartez.

A.3 ZERGA, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen Likidazioaren lehenengo 3 kapituluaren sarrerak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan SARRERA
Ondasun higiezinaren gaineko zerga	1.345
Trakzio mekanikodun lbigailuen gaineko zerga.....	2.270
Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.....	396
Hiri izaerako lursailen balioaren gaineko zergaren igoera	148
ZERGA ZUZENAK GUZTIRA	4.159
Eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko zerga	201
ZEHARKAKO ZERGA GUZTIRA	201
Ur hornidura.....	636
Zabor-bilketa	459
Estolderia.....	173
Kiroldegiko abonua, kirol ikastaroak eta kirol aretoen alokairua	85
Hirigintzako eta establezimenduak irekitzeko lizentziak	48
Enpresa hornitzaileek lurra, lurpea eta hegala okupatzea.....	219
Telefonia enpresak.....	35
Premiamendu eta berandutza interesen errekarguak	21
Itzulketak, ikastaroak, Torrelarragoitiko aparkalekua eta beste txikiago batzuk	63
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	1.739
1, 2 eta 3 KAPITULUAK GUZTIRA	6.099

Udalak kutxa irizpidea aplikatu zuen OHZ, JEZ eta estolderia tasen diru-sarrerak aitortzean, ekitaldi horretako kobrantza-erroldak aitortu beharrean:

- BFAk OHZ eta JEZ kudeatu eta kobratzen ditu, eta konturako entregak eta urteko likidazioak egiten; Udalak 2020an jasotako aurrerakinak erregistratzen ditu. 2021eko otsailean egindako likidazioa Udalaren aldekoa izan zen 605.114 euroan. Ekitaldia ixtean, zerga bietatik kobratzeke zeuden ordainagiriak 377.423 euro ziren, eta horietatik 104.318 euro 2020ko likidazioei dagozkie.
- Zabor bilketaren tasa BBUPk egin eta biltzen du, eta Udalari likidatzen dizkion zenbatekoak Udalak erregistratzen ditu. Tarifa finkoa da eta hiruhileko natural bakoitzeko lehen egunean sortzen da, baina atzerapenez biltzen da: 2020ko hirugarren eta laugarren hiruhilekoetako likidazioak Udalari 2021eko otsailean eta maiatzean jakinarazi zitzaizkion, hurrenez hurren, eta 2021eko diru-sarrera gisa aitortu ziren. 2. hiruhileko kobrantzak eta 2020ko kobratzeko zeuden ordainagirik guztira 233.535 eta 14.674 euro egin zuten.

Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren 2020ko diru-sarrerak ez datoz bat ekitaldi horretan Udalari jakinarazitako transmisio guztien likidazioarekin, zerga honen likidazioan atzerapenak gertatu direlako.

A.4 TRANSFERENTZIEK ETA DIRULAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

Hona hemen transferentzia arruntek eta kapitalezko transferentziek eragindako sarreren xehetasunak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan Zenbat.
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	
Udalkutxa-zerga itunduetan partaidetza: 2019ko likidazioa	19
Udalkutxa-zerga itunduetan partaidetza: 2020ko aurrerakinak	2.085
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA	
Lanbide-Enplegu Plana 2018-19, 2019-20 eta 2020-21: langabetuak kontratatzea	32
Aldaketa klimatikoa, bake-epaitegia eta irakurketa sustapena.....	15
BESTE BATZUK	
Merkataritzarako eta tokiko ostalaritzarako 2.502 bonoren salmentako dirubilketa	50
Itunpekoak ez diren zergetan partaidetza eta beste txikiago batzuk	12
4. KAPITULUA GUZTIRA	2.213
EAE: Torrelarragoiti poligonoaren urbanizazioan hobekuntzak	112
BFA: udal eskola zaharreko patioan aparkalekua	53
EAE: (liburuak eta ibilgailu elektrikoa kargatzeko gunea) eta BBUP (hornidura sarea)	20
7. KAPITULUA GUZTIRA	185
Teknologi Elkartea SA: Hirigintzako aprobetxamendua	969
6. KAPITULUA GUZTIRA	969

Udalkutxaren 2019ko likidazioa, 66.448 euro, Udalaren aldekoa, 2021eko urtarrilean kobratu zen, eta aurrekontu arruntetik eta ekitaldi itxietatik kobratu beharreko saldoak (18.462 eta 47.986 euro, hurrenez hurren) kitatu ziren (ikus A.8). Udalkutxaren 2020ko aurrerakinak 2021eko otsailean likidatu ziren, eta ordaindu beharreko saldoa 113.906 euro izan zen; Udalak 2021ean itzuli zuen. Udalak ondare-kontabilitatean likidazio horren emaitza negatiboa erregistratu du, aurrelikidazioaren zenbatekoarekin; aurrelikidazio hori 2020ko urrian egin zen eta itzultzeko 147.895 euro eman zituen.

Inbertsio errealeen besterentzea

6. kapituluko diru-sarrerak bat datoz teknologia-parkean Aresti sektoreko 3. egikaritze-unitatean aurreikusitako aprobetxamenduan Udalak duen partaidetzarekin (% 15). 2019an onartutako behin-behineko likidazioan, Udalaren partaidetza 968.472 eurorena izango zela kalkulatu zen. Zenbateko hori egikaritze-unitatean eraiki beharreko 17.915 m²-ko pabiloien salmenta-prezioaren eta eraikuntza-kostuaren zenbatespenen bidez lortu zen, 1.643 eta 1.282 euro/m², hurrenez hurren.

Finantzaketako desbideratzeak

Hona hemen Udalak 2020ko abenduaren 31n Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikina kalkulatzeko baliatutako finantzaketako desbideratzeak xehakatu dira:

Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	Zenbat.
Torrelarragoiti urbanizatzeko kuotak.....	914
Arteaga sektorearen urbanizazio kuotak	264
BI-3715 eta BI-3784 errepideak hobetzeko dirulaguntza.....	745
Eskola zaharreko patioko aparkalekurako dirulaguntza.....	53
Ugaldeguren poligonoko urbanizazioan hobekuntzetarako dirulaguntza.....	16
Klima aldaketarako eta ibilgailu elektrikoaren karga-gunerako dirulaguntzak	8
Dirulaguntza eta sarrera helburud. desbideratz. guztizko partziala	2.000
LUOren sarrerengatiko hasierako saldoa	1.422
LUO sarrerak 2020: teknologia parkearen aprobetxamendua.....	968
LUO sarrerak 2020: ondare-ondasunen alokairua	7
LUOren sarrerengatiko desbideratzearen guztizko partziala	2.397
GUZTIRA	4.397

Data bateko finantzaketa-desbideratzeek finantzaketa lotua duten gastuek sortutako desbideratzeak jasotzen dituzte; finantzaketa lotua duten gastuak dira diruz lagundutako jarduera gauzatzen ez bada itzuli beharreko diru-sarrerekin finantzatzen direnak.

Hirigintzako araudiak ezartzen du LUO kudeatzeko baliabideak (hirigintzako mozkinetan udalaren partaidetza, lursailen salmenta, etab.) babes-etxebizitzak eta urbanizazio-obra eraikitza bideratuko direla lehentasunez, baina udal-ekipamenduak eta bestelako inbertsioak ere finantza ditzakete, gauzatze-eperik ezarri gabe eta horiek itzultzeko eskaririk egin ezin dela.

Torrelarragoitiko urbanizazio-kuoten kasuan izan ezik (ikus A.8), Udalak finantzaketa-desbideratzeak eragiten dituzten diru-sarrerak ondare-kontabilitatean ekitaldiko diru-sarrera gisa erregistratu zituen, edo ondare garbiaren emaitzetara egozteko dauden dirulaguntzen kontuan, Pasibo Korrontearen kontu hartzekodun batean erregistratu beharrean, harik eta diru-sarrerak itzuli ezin bihurtu arte, laguntzaren xede den inbertsioa edo jarduera gauzatu delako. 2020ko abenduaren 31ko Pasibo Korrontea 3,6 milioi euro gehitu beharko litzateke kontzeptu hau aintzat hartuta.



A.5 LANGILEEN GASTUAK

Gastu-kapitulu hau era honetara xehakutzen da:

KONTZEPTUA	Gastua	Euroak milakotan	
		LANPOSTU KOP.	
		LZ	Plantilla 20.12.31
Korporaziokideak (alkatea eta zinegotzi 1).....	111	-	2
Funtzionarioak.....	1.150	20	(*) 20
Lan kontratu finkoko langileak	-	6	-
Aldi baterako lan-kontratuko langileak	392	-	(**) 13
Ordainsarien guztizko partziala	1.653	26	35
Gizarte Segurantzari kotizazioak.....	403		
Pentsio osagarrietarako ekarpenak: Elkarkidetza	26		
Aseguruak eta prestakuntza	26		
GUZTIRA	2.108		

(*) Lanpostu hutsak betetzen dituzten bitarteko 7 funtzionario barne hartzen ditu programako bitarteko 2 funtzionario.

(**) Bitarteko langile 1 lanpostu hutsa betetzen, 2010 baino lehenagoko obra edo zerbitzuagatiko 8 kontratu eta 2020ko aldi baterako 4 kontratu 6 hilabetetarako Lanbideko enplegu planekoak.

Langileen ordainsariak % 2 egin zuten gora, 2019an indarrean zeudenen aldean.

Aurreko taulako Gizarte Segurantzaren kotizazioak azarora arte zorpetutakoak dira, 2020ko abenduak kuotak barne hartu gabe, 33.767 euro.

Udalak Gizarte Segurantzaren lanerako ezintasun iragankor kontzeptuko prestazioak osatu zituen eta 2019an 8.838 euroren kostua eragin dute.

2020ko ekitaldian Udalak programako bitarteko funtzionarioaren izendapen 1 egin du, 2022ra arteko indarraldia duena, eta 6 hilabetetarako aldi baterako 4 lan-kontratu, Lanbideko finantzatutakoak.



A.6 ONDASUN KORRONTEEN ETA ZERBITZU ETA INBERTSIOEN KONTRATAZIOA

Ondasun korronten eta zerbitzuen kontratazioak honako xehakapen hau du:

DESKRIBAPENA	Euroak milakotan	
	Gastua	D-O (*)
Konponketak, mantentze-lanak eta zaintza	551	643
Espaloiak, bide publikoak, parkeak eta lorategiak.....	382	556
Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	138	83
Instalazio elektrikoa, kirol-instalazioa, kultura-instalazioa, etab.	31	4
Bulegoko materiala	48	3
Hornidurak	608	-
Energia elektrikoa	88	-
Ura.....	468	-
Gasa, gasolioa, arropa eta bestelako hornigaiak.....	52	-
Komunikazioak, garraioak eta zergak	62	-
Aseguru-sariak	28	-
Zergak-OHZ	3	-
Hainbat gastu	260	81
Publizitatea eta propaganda.....	52	1
Gastu juridikoak	40	47
Kultura jarduerak eta festak, etab.....	21	2
Beste txiki batzuk.....	147	31
Kanpoko enpresek egindako lanak	1.698	381
Udal aretoen garbiketa	194	89
Kiroldegia kudeaketa	302	14
Gune berdeen mantentze-lanak	415	34
Ludotekak eta gaztetxea	223	11
Liburutegia.....	63	-
Dirubilketa zerbitzuak (Gesmunpal, BBUP eta BFA).....	64	-
Beste txiki batzuk.....	437	233
9 zinegotzien dietak, organo kolektiboen bileretara joateagatik	121	
GUZTIRA	3.379	1.108

(*) 2020ko abenduaren 31n konprometitutako kredituak.

Udalak 2021eko aurrekontuaren kargura 2020ko ekitaldiko 96.509 euroren fakturak erregistratu zituen, eta 2020an ondare-kontabilitatean aurrekontuari aplikatzeko dauden eragiketa gisa 76.344 euroren zenbatekoa erregistratu zuen.

Udal arkitektoak bere lanpostuaz bestelako zerbitzuengatik 363.727 euroren fakturak ordaintzeko eskatu zituen, baina Udalak ez zituen onartu, eta 2020an administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu zuen, ebazteke dagoena. Profesional horrekiko harremanak arautzen zituen kontratua lan-kontratu izendatu zen 2018an, eta Udalak urte horretan langile horren azken 4 ekitaldietako Gizarte Segurantzako kuotak ordaindu zituen. 2020an, langileak erretiroa hartu zuen, eta Gizarte Segurantzak dagokion pentsioa ukatu zion, beharrezko urteak kotizatu ez zituelako. Ebazpen horren aurka, langileak errekurtso judiziala aurkeztu zuen 2021eko martxoan, eta demanda aurkeztu zuen Gizarte



Segurantzaren eta Udalaren aurka, 1990ean prestazioak hasi zirenetik kuota guztiak ordaindu ez zituelako.

Inbertsioak

Hona hemen egindako inbertsioen xehakapena:

DESKRIBAPENA	Euroak milakotan	
	Gastua D-O (*)	
Azpiegiturak: Torrelarragoiti poligonoko bideak.....	493	-
Azpiegiturak: eskola zaharreko plazaren aparkalekua eta estalkia (obra eta zuzendaritza).....	-	1.814
Azpiegiturak: Arteaga sektorea urbanizatzea-prezioen berrikusp. eta obraren zuzend.	72	-
Azpiegiturak: 1 eta 3 Bizitegi Egikaritze Unitateen birpartzelazio-proiektuak	-	32
Azpiegiturak: kultur ekipamenduko proiektua Santimamin	26	15
Azpiegiturak: Beste txiki batzuk.....	55	-
Eraikinak: eskola zaharrak egokitzea.....	-	547
Eraikinak: Gazituagako atletismoko pista, ikasteko gela eta beste txiki batzuk hobetzea.....	8	98
Furgoneta elektrikoa, jolasgunea, hiri-altzariak, liburuak, ekipo informatikoak.....	33	132
Arau Subsidiarioak eta Santimamiko Plan Partziala aldatzeko proiektuak eta softwarea	63	66
GUZTIRA	750	2.704

(*) 2020ko abenduaren 31n konprometitutako kredituak.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.7 EMANDAKO TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUNTZA KORRONTEAK

Hona hemen gastuen 4. eta 7. kapituluaren xehakapena:

	Euroak milakotan
ONURADUNA ETA DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERA	Gastua
SEKTORE PUBLIKOARI TRANSFERENTZIAK	1.624
Mankomunitatea: 2020ko aurrekonturako ekarpen arrunta.....(*)	1.542
Mankomunitatea: GLLetarako ekarpen gehigarriak, enplegua sustatzea eta argiteria	82
DIRULAGUNTZA IZENDUNAK	370
Zamudio Kirol Elkartea (futbol)	120
10 kirol-elkarte	61
Eguraldi Ona elkartea: jaiak antolatzea	65
Eskola publikoetako ikasleen guraso-elkartea	37
Merkatarien elkartea: jarduera orokorra eta merkataritzari buruzko azterketa Zamudion.....	32
Kultur elkarateak (4) eta euskara sustatzekoak (1).....	31
Genero-berdintasunerako elkarateak (2).....	10
Jata Ondo, Eudel, Euskal Fondoa, Nekazamudio, Minbiziaren Espainiako Elk., ATECE, Erretiratuen Elk.....	14
DEIALDI BIDEZ EMANDAKO DIRULAGUNTZAK	233
Bonuak (2.502) Zamudioko dendetan kontsumitzeko	88
Merkatarientzako laguntzak COVIDaren ondorioz itxi behar izateagatik (42 onuradun).....(*)	83
Irakaskuntzarako laguntzak (208 ikasle).....	50
Jaiotza-laguntzak, behar sozio-sanitarioak (11) eta lehiaketak.....	12
BESTE BATZUK	68
Mankomunitatea: zerbitzu informatikoak transferitzea 2017an.....	68
4. KAPITULUA GUZTIRA	2.295
Igogailua jartzeko laguntzen deialdia (2 bizilagun-komunitate)	12
7. KAPITULUA GUZTIRA	12

(*) Aztertutako transferentziak eta dirulaguntzak.

Mankomunitatearen Estatutuek zehazten dute, transferitutako zerbitzuen aurrekontua finantzatzeko egingo dela urteko ekarpen arrunta, udalen ekarpena kalkulatzeko sistema zein izango den zehaztu gabe. 2020ari dagokiona zerbitzu bakoitzerako aurrekontuan zenbatetsitako defizitetik abiatuta kalkulatu zen. Udalaren araberako banaketari dagokionez, Estatutuek diote biztanleak edo beste irizpide tekniko batzuk hartuko direla aintzat:



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

		Euroak milakotan	
KONTZEPTUA-ZERBITZUA (banaketa-irizpidea)	Ekarpena	% (*)	
HHSen bilketa eta tratam. (kostua udaler. arab.); papera eta tamaina handiko hondak. (biztanleak).....	622	28,6	
Bide garbiketa (kostua udalerriko).....	250	16,0	
Argiteria publikoa (argi-puntuen kopurua).....	229	20,1	
Etkez etxeko laguntza (2019ko zerbitzu-orduak), Esku-hartze komunitarioa (biztanleak) eta gizarte eta hezkuntzako (2018ko azaroko kasu kopurua).....	142	19,6	
Euskaltegia (ikasle kopurua) eta sustapen-jarduerak (biztanleak).....	101	17,4	
Enplegu sustapena - Behargintza Txorierrri, SL (biztanleak eta enpresa-kopurua).....	49	19,1	
Mankomunitatearentzako beste zerb. edo enkargu batzuk (biztanleak, zerb.-unitateak, etab.).....	39	28,0	
Gastu orokorrak (biztanleak).....	110	15,5	
GUZTIRA	1.542	21,0	

(*) Udalaren ekarpenaren ehunekoa, udalei jasanarazitako guztizkoari dagokionez.

Aurrekontua gauzatzean desbideratzeak gertatu ziren, eta 2020an Mankomunitateak eta bere erakunde autonomoak 1,5 milioi euroren aurrekontu-emaizta doitua eskuratu zuten eta 1,6 milioi euro egin zituen aipatutako bi erakunde horien 2020ko abenduaren 31ko Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikinak. Gainera, % 100ean partaidetua dagoen Behargintza Txorierrri SLk 4.980 euroren etekina lortu zuen zergen ondoren, eta 2020ko abenduaren 31n, 223.774 eurorena izan zen haren ondare garbia.

Zamudio Kirol Elkartek udal funtsak baliatu zituen honako hauek finantzatzeko: lehen futbol taldearen jarduera, federatutako beste 6 talde eta eskola-kiroleko 8 talde; hona hemen xehakapena, aurkeztutako kontu justifikagarritik eskuratutakoa:

		Euroak milakotan	
DESKRIBAPENA	Zenbat.		
DIRU-SARRERAK	137		
Udalaren ekarpena	120		
Lehenengo taldea: bazkideen kuotak, babesletzak eta partiduetako diru-bilketa	7		
Federatutako kirolarien eta eskola-umeen kuotak (220 jokalarri).....	7		
Udal instalazioen alokairua.....	3		
GASTUAK	137		
Lehenengo taldea: 31 jokalariren dietak	43		
Lehenengo taldea: 12 teknikariren eta laguntzaileen dietak.....	29		
Talde federatuak eta eskola mailakoak: 35 teknikariren dietak.....	21		
Lehenengo taldea eta federatuak: federazioko lizentz. eta futbolarien mutual.....	11		
Lehenengo taldea eta federatuak: Arbitrajeak.....	4		
Kiroletako materiala.....	18		
Lehenagoko jokalarri baten fitxaketa partaidetz. erreklamaz. gastu juridik.....	3		
Mantentze-lana, aseguru., telef., gestoria, 2019ko Soziet. Zerga eta beste (*).....	8		

(*) Futbol zelaiaren mantentze-lana, argia, ura, gasta eta garbiketa Udalaren kontura.

2020rako Eguraldi Ona Elkartek antolatu beharreko jai-ekitaldiak bertan behera geratu ziren, eta horren ondorioz 46.487 euroren itzulketa partziala egin zitzaion 2021eko otsailaren 15ean. Itzulketa hori 2021eko aurrekontuaren kargura erregistratu zen.



A.8 AURREKONTUKO ZORDUNAK ETA PASIBO KORRONTEA

Hona hemen 2020ko abenduaren 31n aurrekontuko zordunen xehakapena:

KONTZEPTUA	Aurrekontu itxiak			2020ko aurrek.		
	20/1/1	Baliog.	Kobr.	20/12/31	20/12/31	GUZTIRA
Trakzio mekanikodun Ibilgailuen gaineko zerga.....	362	-	16	346	68	414
HILBI zerga.....	207	2	2	203	21	224
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga.....	15	-	-	15	-	15
Eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko zerga.....	299	67	23	209	15	224
Ur-hornidura.....	354	-	314	40	311	351
Zabor-bilketa.....	22	-	-	22	1	23
Hirigintzako lizentziak.....	136	7	28	101	7	108
Hornidura-enpresek jabari publikoaren erabilera prib.....	30	-	-	30	11	41
Itzulketak.....	43	-	-	43	-	43
Lezamako Udala-La Cruz polig. urbaniz. gastuak.....	224	-	-	224	-	224
Beste txiki batzuk.....	39	-	-	39	6	45
1etik 3rako kapt. guztizko partziala	1.731	76	383	1.272	440	1.712
Lezamako Udala-La Cruz polig. aprobetxam.....	577	-	-	577	-	577
Torrelarrag. eta Ugaldeguren 1992-96ko urb. kuotak.....	359	-	-	359	-	359
Urbanizazio-kuotak Torrelarragoiti: 2018ko likidazioa.....	163	-	-	163	-	163
Arteaga sektorearen urbaniz. kuotak 2015 eta 2018.....	100	-	22	78	-	78
Transf. eta dirul. korront. (Udalkutxa 2019).....	695	-	647	48	38	86
Aparkal. eta hornidura sarerako dirulag.....	-	-	-	-	72	72
GUZTIRA	3.625	76	1.052	2.497	550	3.047
Nekez egingarri diren saldoetarako zuzkidura						(1.735)
Aurrekontuko kobratzeko saldoak zuzkiduratik garbi						1.312

Udalak 1,7 milioi euroan balioetsi du 2020ko abenduaren 31n nekez kobragarri diren saldoentzako zuzkidura eta kobraezinekotzat jo ditu 2019a baino lehenagoko saldo guztiak eta % 35 eta % 1ean zuzkitu ditu kobratzeko dauden 2019ko eta 2020ko saldoak, hurrenez hurren.

Aurrekontuko zordunak dira Balantzearen aktibo korronteko “Zordunak eta Kobratzeko beste kontu batzuk” eta “Epe laburreko finantza-inbertsioak” idazpuruetoako saldoaren osagai nagusia, zuzkiduratik garbi; 2020ko abenduaren 31an, guztira 1,4 milioi euro egin dute.

Zamudio eta Lezama udalerrietan dagoen La Cruz poligonoaren hirigintza-garapena Lezamako Udalak gauzatu zuen. Udalak bere gain hartu zituen hainbat kostu (urbanizazio eta birpartzelatze proiektuak, Plan Partziala aldatzea eta beste batzuk) eta Lezamako Udalak partzialki itzuli zituen, sarreraren 3. kapituluan kobratzeko 224.431 euroren saldoa gelditu zelarik. Udalak poligonoaren aprobetxamenduetan duen partaidetza ere kobratzeko dago, 577.613 eurorena, onartutako behin-behineko likidazioaren ondorioz. Bi saldo horiek diru-sarrera gisa aitortu ziren 2019an, eta 2020an 314.402 eurorekin hornitu ziren antzintasuna aintzat hartuta eta epe laburrean kobratzea aurreikusi ez zelako. Poligono horren garapenarekin lotuta, Udalak 575.800 euro kobratu zituen 2014an enpresa batetik,



poligonora ekarritako lurzoruen deskontaminazio-tratamenduagatik. Udalak bidegabetzat jo du diru-sarrera hori, likidazioa eta kobrantza Lezamako Udalari dagozkiolako; kopuru hori da 2020ko abenduaren 31n aplikatzeko dauden kobrantzen saldoaren osagai nagusia.

Ugaldeguren eta Torrelarragoitiko urbanizazio-kuoten saldo zaharrak osorik zuzkituta daude, eta Udalak horiek erregularizatzea aurreikusi du.

Udalak 2018an onartu zuen Torrelarragoiti poligonoaren urbanizazioaren behin betiko likidazioa, zenbait jabetza dagokionez kobratzekoa zena Udalaren arabera, 355.280 euro sartu behar baitzituzten, 2020ko abenduaren 31n 162.958 euro gelditzen zirelarik kobratzeko. Gainerako jabeek gehiegizko diru-sarrerak egin zituzten, eta guztira 801.735 euroren ordaintzeko saldoak gelditzen ziren. Kobratu beharreko likidazioak 2019ko sarrera gisa kontabilizatu ziren, eta itzuli beharreko saldoa finantzaketako desbideratzeen kalkuluan jaso da. Ondare-kontabilitatean, itzuli beharreko likidazioengatik saldoa 2020ko abenduaren 31ko pasibo korrontean barne hartzen da, hurrengo taulan zehaztu bezala. 2018ko likidazioaren aurka errekurtsioa jarri zen, eta 2020an ebatzitako epaiak hura zuzentzea agintzen zuen, guztira 272.155 euroren gastuak jasotzea zalantzan jarri baitzuen. Udalak epai hau berrikusteko eskatu du, eta txosten hau idatzi dugunean auzia ebatzi gabe dago.

Pasibo korrontea

Hona hemen balantzearen epigrafe horren xehetasunak, 2020 abenduaren 31n:

Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	Saldoa 20/12/31
Aurrekontuko hartzekodunak	1.310
Aurrekontuz kanpoko saldoak	1.255
La Cruz poligonoko lurzoru kutsatuaren jabearen bidegabeko kobrantza	576
Dirulaguntza alde aurretik kobratzea eta aplikatzeko dagoen diru-bilketa	237
Administrazio publikoak-Foru Ogasuna eta Gizarte Segurantzza	137
Eraikitako lurzorian gehiegizko eraikigarritasunaren fidantza	154
Beste fidantza batzuk dirutan	99
BEZ hartzekodunak eta bestelako txikiago batzuk	52
Beste saldo batzuk	1.034
Torrelarragoitiko polig. urbanizazioaren behin betiko likid.-hartzekod. saldoak	802
Udalkutxa 2020ko likidazio negatiboa	147
2020ko fakturak, aurrekontuan aplikatu gabe	76
Ordaintzeko dauden onartutako itzulketak	9
PASIBO KORRONTEA GUZTIRA	3.599

2020an amaitutako sustapen batean, eraikitaileak bere partzelaren eraikigarritasuna gainditu zuen, eta Udalak gehiegizko balioaren gordailua eskatu zion, 153.749 euro, eraikigarritasun hori sektoreko beste jabe bati erosi arte.



A.9 AKTIBO EZ KORRONTEA

Hona hemen aktibo ez korrontearen osaera eta eragiketak 2020an, xehatuta:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan				
	Kostua		Kostua Amort. metat.		
	20/1/1	Inberts.	Bst.batzuk	20/12/31	20/12/31
Lursailak.....	12.111	-	-	12.111	-
Eraikuntzak.....	26.880	20	-	26.900	11.910
Azpiegiturak.....	31.417	553	(38)	31.932	51
Ondare historikoko ondasunak.....	955	-	-	955	267
Beste ibilgetu material bat.....	10.625	140	(40)	10.725	9.562
Abian dagoen ibilgetu materiala.....	60	-	(60)	-	-
IBILGETU MATERIALA	82.048	713	(138)	82.623	21.790
LURRAREN ONDARE PUBLIKOA	17.844	-	-	17.844	1.312
IBILGETU UKIEZINA	955	58	45	1.058	614
FINANTZA INBERTSIOAK	286	-	-	286	-
GUZTIRA	101.133	771	(93)	101.811	23.716
AKTIBO EZ ARRUNTA GUZTIRA					78.095

2016an aldatu egin zen azpiegituretako inbertsioen kontabilitateko tratamendua, izan ere ordura arte ez ziren amortizazio-gai. Udala alta berriak amortizatzen hasi zen, baina aurreko urteetako 256ak, 30,2 milioi euroren kostua zutenak, ez dira amortizazio-gai. Inbentarioaren sistema osagarriak 2000. urteari esleitzen dizkio urte horretako eta aurreko ekitaldietako alta guztiak. Hori dela eta, elementu bakoitzaren azterketa bat egin behar da txertatze-urte efektiboa zehazteko eta amortizazioa kalkulatzeko.

A.10 KONTRATAZIOAREN ANALISIA

KONTRATUAK	Data	ESLEIPENA		Subro- gazioa	Gastua 2020	AKATSAK	
		Prozed.	Zenb. (*)			A	B
1. Eremu berdeak eta bideak mantentzea (urte 1).....	abe-2018	Irekia	396	7	396	A1, 2	B
Luzapena (urte 1).....	urtar-2020						
2. Kiroldegia: sarbideak, mant. eta sorosleak (urte 1).....	ots-2020	Irekia	316	6	219	A1, 2	
COVID-19, 2020ko martxotik ekainera etenaldia.....	api-2020						
3. Eskola zahar. plazaren aparkal. eta estalkiko obra.....	aza-2020	Irekia	1.731	-	-	A1	B
GUZTIRA			2.443	13	615		

(*) Esleitutako zenbatekoak BEZa barne.

AKATSAK	Esleipena	
	Esped. zk.	zenbat.
A ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIOA		
1. Oroitidazki justifikagarririk gabe.....	3	2.443
2. Kontratatzailearen profilean argitaratu gabek izapideak.....	2	712
B BERARIAZKO AKATSA		



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Beste erosketa batzuk

Gainera, beste erosketa batzuk aztertu ditugu eta ikusi dugu zenbait kontraturi indarraldia amaitu zaien arren egikaritzen jarraitu dutela.

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	Indarraldi- amai.	Egikaritze amai.	Gastua 2020
